



Euskaraldiaren Pasaiaiko hamaikakoa aurkezteko ekitaldia, martxoaren 14an. EUSKARALDIA

Zarautzen izango da gaur Euskaraldiaren gune ibiltaria, eta aukera egongo da izena emateko. Ekinbidea sustatzeko hamaikako taldeak osatu dituzte herri askotan, eta aurten, lehenengoz, Euskaraldia Hika antolatu dute ZirHikako kideek. 2-3

# Herriz herri dabil Euskaraldiaren gune ibiltaria



**Gorka Txapartegi:**  
«Alameda jatetxearen  
helburua da Hondarribiaren  
ispilu izatea»

ELKARRIZKETA, 4-5



**Galtzaundi** Tolosaldeko  
euskaltzaileen elkarteak  
egoitza berria du,  
Tolosako Plaza Berrian

EUSKARA, 10

2025eko  
maiatzaren 9a,  
ostirala  
XVI. urtea  
674. zenbakia  
Prezioa: 0,50€



# «Euskaraldia ez da helburua, tresna bat baizik»

Maiatzaren 15etik 25era bitarte iraungo du Euskaraldiak. Herriz herri dabil gune ibiltaria, eta askotariko jarduerak antolatu dituzte Gipuzkoako herrietan. Hamaikako taldeak osatzen ari dira.

Odile Bourguignon Goñi

**E**uskaraldiak maiatzaren 15etik 25era bitarte iraungo du aurten, eta oraindik zabalik da izena emateko epea. Hainbat modutan egin daiteke: *Euskaraldia.eus* webgunean edo herriz herri dabilen gune ibiltariaren bitartez. Gaur Zarautzen izango da postua, eta bihar Hondarribian eta Irunen. Euskararen erabilera sustatu nahi dute, hizkuntza ohiturak-eta aldatuz. Horretarako «tresna» bat da Euskaraldia.

Ekinbidearen hazia 2015ekoa da, Lutxo Egiaren *Bi-lingual: Transitoak* performancearekin batera. Bilbon hilabete batez euskara hutsean bizitzeko hautua egin zuen Egiak, eta esperimenduaren ondorioak plazaratu zituen gero. Egiaren lana abiapuntu, Donostiako Egia auzoan euskaraz bizitzeko zazpi asteko egitasmoa antolatu zuten, eta parte hartzaileek identifikazio txapak erabili zituzten soinean. Aurrerago, Lasarte-Oriako herritarren eskutik *ahobizi* eta *belarriprest* kategoriak sortu ziren, berrogei egunez euskaraz aritzeko hautua egin baitzuten; haiek ere, txapak soinean.

Haizea Solagurenbeaskoa Euskaraldiaren Gipuzkoako sustatzaileak dio herritar ugari bildu zirela euskararen alde antolatutako ekinaldi haietan, eta Euskaraldia sortzeko ideia ateratzea. «Aurreneko esperientzia positibo haietatik eratorri

zen Euskal Herri osorako proposamena». Hain zuzen, 2018an antolatu zen lehenengo Euskaraldia, eta 225.000 lagunek eman zuten izena. Aurtengoa laugarren edizioa da, eta, «are ikusgarriagoa izan dadin», udaberrian egingo da lehenengoz; udazkenean izaten zen lehen.

## Zertarako Euskaraldia?

Solagurenbeaskoak kontatu du euskararen erabilera eragiteko egitasmoa dela Euskaraldia, «hizkuntza portaeretan aldaketa bat eragitea ardatz». Izan ere, datuek diotena azpimarratu du Gipuzkoako sustatzaileak: euskararen ezagutzak ez duela erabilera bermatzen. Hori aldatzeko, esan du eguneroko ohiturei erreparatu behar zaiela: «Jendartean ohituta gaude erdaraz ulertuko gaituzte-nez erdarara jotzera edo, beharbada, lehenengo hitza euskaraz baina beste guztia erdaraz egitera. Egoera horietan eragiteko ariketa kontziente bat da Euskaraldia, erdaraz gailentzen diren inertzia iraultzeko proposamen bat».

Izena ematen dutenek txapa jasoko dute, aukeratu duten rola eraberrakoa: *ahobizi* edo *belarriprest*. *Ahobizi* direnek lehenengo hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute, eta *belarriprest* direnek, berriz, eurekin euskaraz egin daitekeela adieraziko dute. Solagurenbeaskoak txapa janzteak duen garrantzia azpimarratu du, norberaren jarrera zein den adierazten duelako: «Modu batera edo bestera, baina egin ezazu nirekin euskaraz».

Datuek garrantzia dute, baina Haizea Solagurenbeaskoak esan du

«ariketan» jarri nahi dutela arreta: «Euskaraldia ez da helburua, tresna bat baizik». Gipuzkoako sustatzaileak uste du erronka eta urrats txikiekin posible dela hizkuntza ohiturak aldatzea. Horretarako, norberak bere buruari helburu lorgarriak ezarri behar dizkiola adierazi du: «Kontua ez da, besterik gabe, maiatzaren 15ean txapa jartzea. Norbanako eta entitate bakoitzak hizkuntza joeren inguruan hausnartu behar du, erronka propioak eta errealak jartzeko».

16 urtetik beherakoei «xaxatzaille» izateko deia egin diete Euskaraldiaren antolatzaileek: «Jarrera aktiboa izan dezatela nahi dugu, zirikatzaillea». Hala, antolatzaileek adierazi dute gaztetxoek Euskaraldian rol aktiboa jokatu ez badute ere gurasoei, familiari edo lagun helduagoei eragin diezaieketela, betiere «euskararen garrantzia azpimarratuz».

## Herriz herriko egitasmoa

Igandean Donostian izan zen Euskaraldiaren gune ibiltaria; asteazkenean, Oñatin, eta ostegunean, Azkoitian. Solagurenbeaskoak dioenez, gune ibiltariaren helburua da Euskaraldia sozializatzen laguntzea, izen ematea sustatzea eta baliabideak partekatzea —kamisetak, poltsak eta gisakoak—. «Euskaraldiaren dinamika presente dagoen lekuetan, gune ibiltaria

↑ Euskaraldiaren gune ibiltaria, asteazkenean, Oñatin. HITZA



hauspo bat izan daiteke ekimena herrian sozializatzeko».

Herri bakoitzak bere nortasuna eta ohiturak ditu, eta hori mantentzeko saiakera egin dute Euskaraldiaren dinamizatzaileek. Solagurenbeaskoak aitortu du ez dutela sortu nahi izan leku guztietan «modu berean erreproduzitu» den ekimen bat, eta herri eta auzo bakoitzaren «izaera» mantendu nahi izan dutela. Esaterako, Zegaman eta Olaberrian gazte taldeak dira herrian Euskaraldia sustatzen ari direnak; Elgoibarren, berriz, ardatza herriko entitateak dira —komertzio txikiak, mendi taldea, euskara taldea, ikastola...—, herritarrek entitate horietan elkartzeko baitira. Eragileek eta norbanakoek batzarrak osatu dituzte beste herri batzuetan.

Askotarikoak dira Euskaraldiaren bueltan antolatutako ekintzabideak. Eibarren eta Zumaian koreografiak sortu dituzte aurten Bulegok plazaratutako abestiarekin, eta mendi martxak ere antolatu dira gailurrera bidean euskaraz egiteko. Beste adibide bat: Oiarzualdean martxan da Euskaparete lehiaketa. Atzo bukatu zen izena emateko epea; hortaz, gaurtik aurrera saltokiak eta erakusleihoak apainduta egongo dira maiatzaren 25era bitarte Errenterian, Lezon, Oartzunen eta Pasaian.

Haizea Solagurenbeaskoak dioe-



«Kontua ez da maiatzaren 15ean txapa jartzea. Norbanako eta entitate bakoitzak hizkuntza joeren inguruan hausnartu behar du»

## HAIZEA SOLAGURENBEASKOA

Euskaraldiaren Gipuzkoako sustatzailea





# Gipuzkoako 59 herrik hartuko dute parte Euskaraldia Hikan

→ ZirHika taldeak antolatu du ekinbidea, eta parte hartuko duten herrietako biztanleek izena emateko aukera dute oraindik.

Odile Bourguignon Goñi

ZirHika taldeak Euskaraldia Hika antolatu du lehenengoz, Taupa euskaltzaleen mugimenduarekin batera. Herri batzordeek martxo bitarte izan zuten izena emateko aukera, eta 83 animatu dira; horietatik 59 Gipuzkoakoak dira. Herri parte hartzaileetako biztanleek galdera bati erantzun behar izan diote Euskaraldian izena ematean: «Euskaraldia Hikan ere parte hartu nahi al duzu?». Baiezkoa erantzunez gero, *H* daraman pegatina jasoko dute. Oraindik bada aukera izena emateko. Egitasmoaren bidez, hitanoaren erabilera sustatu nahi dute.

2023an Euskal Herriko I. Hika Topaketa izan zen Oñatin, eta hitanoa sustatzen duten laurogei eragile baino gehiago elkartziren. Patxi Saez ZirHikako kideak kontatu duenez, han sortu zen taldea sortzeko ideia: «Hika aritzea sustatzeko talde eragile bat sortzea erabaki zen». Datorren azaroan egingo dute II. Hika Topaketa.

Orain hiru urteko III. Euskaraldiaren garaian Hikaldia antolatu zen, baina egitasmo orokorretik aparte. Hitanoa erakusteko ikastaroak antolatu ziren orduan, eta, batez ere, Gipuzkoako herriek hartu zuten parte; haien artean izan ziren Beasain, Usurbil, Bergara eta Oñati. Hitanoaren sustapena lehenengoz txertatu dute Euskaraldia-

ren dinamikan, eta ZirHikak hartu du Euskaraldia Hikaren ardura.

Saezek dioenez, hikari «ikusgarritasuna» ematea da helburu nagusia, eta, aldi berean, hitanoa «gizarteratzea». «Teknologia berriekin ere hitz egiten dugun garai hauetan, ahaztu egiten zaigu hika ere egin daitekeela». Hortaz, izena eman duten herrietako biztanleek hitanoa erabiltzeko aukera izango dute; horretarako, Euskaraldiaren oinarriak mantenduta, beharrezkoa izango da *ahobizi* edo *belarriprest* izango diren erabakitzea. Halere, Saezek jakinarazi du hika jakitea ez dela ezinbesteko baldintza: «Euskaraldia Hikan parte hartuta, solaskideari aukera emango zaio norberari hika egiteko».

## Herritarren parte hartzea

Herrientzat itxia dago izena emateko epea, baina herritarrek oraindik badute aukera egitasmoan parte hartzeko. ZirHikako kideak azaldu duenez, erantzun ona izan du egitasmoak: «Oraingoz, Euskaraldian izena eman duten herritarren %30ek edo %40k eman dute izena Euskaraldia Hikan». Erantzunarekin pozik daudela esan du Saezek.

↑ Euskaraldia Hikan parte hartuko dutenek jasoko duten H pegatina. EUSKARALDIA



«Euskaraldia Hikan parte hartuta, solaskideari aukera emango zaio norberari hika egiteko»

PATXI SAEZ

ZirHika taldeko kidea



Baina ez daude egoera berean toka —mutilei egiten zaien hika— eta noka —neskei egiten zaiena—, noka ez baita horrenbeste entzuten hika maiz egiten dutenen artean ere. Hortaz, Euskaraldiaren antolatzaileek garrantzia eman nahi izan diote desberdintasun horri, eta gomendio bat eman dute: has-teko, «kontziente izateko» tokaren eta nokaren arteko bereizketaz, nokaren inguruko «ezezagutzaz» eta «sozializazio faltaz», eta, errealitatearen kontzientzia hartuta, «hauspoa emateko» nokari. Hala, aurren ere ikastaroak antolatu dituzte herrietan; esaterako, Orion martxan dago nokari buruzko ikastaro labur bat.

Hikaren sustapenerako bestelako egitasmoek dagokienez, sona izan ohi du Hikadromoak, taldean hika egiteko jarduerak. Azpeitian otar bat osatuko dute Euskaraldian izena eman duten entitateek, saltokietan hika egiten duten herritarren artean zozketatzeko. Musean hika egiteko jarduerak ere antolatu dituzte, eta 2023an Segurako Xirika antzerki taldeak estreinatutako *Zopa* antzezlanaren herriz herri ibiliko da berriz ere; bihar Oiartzunen izango da. Antzezlanaren hitanoa biziberritzeko asmoz sortu zuten. ●

**TAPIA**  
energia

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu  
Instalatu  
Mantendu

40  
URTE ZUGANDIK GERTU

943 889 594  
www.tapiaenergia.com

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

*Euskadi, auzolana*

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



Urko Iridoy Alzelai

HONDARRIBIA— Gorka Txapartegi sukaldariaren (Hondarribia, 1969) amona Juliak beharrak bultzatuta ireki zuen Hondarribiko Alameda jatetxea, familiak biziraun zezan. 84 urte pasatu dira ordutik, eta emakume haren bilobek Alamedako suaren alboan jarraitzen dute oraindik lanean; tartean, Gorka Txapartegi. Askotariko produktuak pasatzen dira haren eskuetatik, hala herriko baratzeetako barazkiak, nola Done Pedro kofradiako arrainak. Esan du Alameda jatetxea «asko» aldatu dela hastapenetatik hona, eta azken hiru hamarkadetan, Michelin izarra lortuta, Bidasoko sukaldaritzaren erreferente handienetako bat bilakatu da.

#### Nola hasi zen Alameda jatetxea?

Gure amona Arabako herri txiki batetik etorri zen Hondarribira, ahizparekin batera. Ahizpak Txirla ostatuan egiten zuen lan, egun Axeri elkartearen horretan, eta hari laguntzera etorri zen amona Hondarribira. Aitona Aizarnatik etorri zen, eta Garmendia okindegian egiten zuen lan. Amonak ia ez zekien euskaraz, eta aitonak apenas zekien gazteleraz, baina lortu zuten elkar ulertzea. Jatetxe bat ireki zuten.

#### 1941ean.

Amonak ireki zuen. Garai hartan, eraikina San Gabriel egoitzarena zen, benefizentziarena. Hemen hazi gara familiako denak; sukaldean zen gure egongela.

#### Zuk sukaldari izan nahi zenuen, ala familiak bultzatu zintuen?

Ikasle txarra izatearen ondorio da hau. Betidanik gustatu izan zait eskuekin lan egitea eta, bereziki, suaren ondoan egotea. Sukaldean asko ibiltzen nintzen, eta, azkenean, ikasketak nondik bideratu ez nekiela, gastronomiaren munduan sartu nintzen. Donostiako Sukaldaritza Eskolan sartu nahi izan nuen, baina ez ninduten hartu, eta Marketin eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua egin nuen, Cebanc-en. Hala ere, praktikak jatetxeetan egin nituen, nik sukaldean egon nahi nuelako. Irungo Jaizubia jatetxean hasi nintzen, Manolo Izarekin; Oiartzungo Zuberoan egon nintzen gero, Hilario Arbelaitezekin, eta, azkenik, Martin Berasategirekin aritu nintzen, sei hilabetez.

#### 21 urterekin hartu zenuen Alamedako sukaldearen ardura.

Hala da. Garai hartan belaunaldi aldaketa bat egin behar izan genuen jatetxean, egoerak behartuta. Orduan gazteok Alamedaren ardura hartu izan ez bagenu, itxi egin beharko genukeen. Oso gaz-

# «Pentsaezina egiten zitzaigun amonak sortutako tabernarekin lortu dugun guztia lortzea»

## GORKA TXAPARTEGI

Sukaldaria

Gorka Txapartegi sukaldariak duela 35 urte hartu zuen Hondarribiko Alameda jatetxearen ardura. Haren amona Juliak ireki zuen, 1941ean. Txapartegik dio jatetxea asko aldatu dela ordutik, baina lehengo harreman bera dutela bertako produktuekin.

te hasi nintzen hemen lanean, eta salto handia izan zen niretzat. Ez nuen beldurrik izan, baina gaztea izanda, banuen axolagabekeria pixka bat, denok izan dugun moduan. Mila gauzatan sartzen nintzen: lehiaketetan, instituzioen afarietan... Etxean beti ikusi dudak sukaldaritzari bilakaera bat emateko asmoz etorri nintzen hona. 1997an, Espainiako Sukaldari Gazteen Saria jaso nuen, eta urte berean Michelin izarra lortu zuen Alamedak. Pentsaezina egiten zitzaigun amonak sortutako tabernarekin lortu dugun guztia lortzea. Beraz, jatetxeak bilakaera handia izan du zu bertan zaudenetik, ezta?

Bai, eta beharrezkoa zen. Amonak zeukan negozioarekin jarraituko bagenu —alegia, familia moduan jardungo bagenu—, Alameda itxita egongo zatekeen. Familia bat izatetik enpresa bat izatera pasatzea izan zen zailena, baina gauzak profesionalizatu egin behar ziren. Jatetxean, orain nork bere egitekoa argi dauka, baina berregituraketa prozesu handi bat egin genuen. Dena koherentziaz egin behar da; bestela, ez goaz inora.

**Herriko jendeak jateko eta edateko gune gisa sortu zuen amonak Alameda, eta orain, jatetxearen bilakaera dela eta, bezeroen profila aldatu egin da. Orduko garaian falta sumatzen duzu?**

Gu hemengoak gara, eta oso eroso sentitzen gara herriarekin dugun harremanarekin. Gure helburua Hondarribiaren ispilu bat izatea da. Michelin izarrak beste estatus bat ematen digu, baina gu ez genbiltzan izar horren bila. Gauzak ondo egitearen ondorio izan zen lortu izana. Gauzak finago egin nahi izan ditugu beti, hobetu nahian gabiltza etengabe, baina egia da guretzat oso garrantzitsua dela jatetxea herriko jendearentzat topaleku izatea. Hain zuzen ere, 2014an horregatik ireki genuen taberna Alamedan bertan, eta 2019an Sutan erretegia Hondarribiko Hiruzta txakolindegian. **Michelin izarra zer da zuentzat, oparia ala zigorra?**

Izarra Alamedan egindako lan guztiaren aitortza bat da, baina pisu hori gainean izateak asko handitzen du exigentzia. Batzuetan badirudi ezin garela inoiz



«Ikasketak nondik bideratu ez nekiela, gastronomiaren munduan sartu nintzen azkenean»

«Balioa eman behar diogu gertuko produktuari, eta, noski, duen prezioan ordaindu behar dugu»

erlaxatu, baina guk argi dugu exigentzia hori bezeroak ezarri behar digula, bezeroei esker bizi baikara.

#### Kanpotik datozen bezeroek zer irudi dute Hondarribiaz?

Hemen denok dugu lagun bat baratze bat duena edo arrantzalea dena, baina askorentzat hori luxu bat da. Paristik edo New Yorketik datorren norbaiti lau tomate edo etxeko oiloen dozena bat arrautza ematen badizkiozu, kristoren oparia egingo diozu, haiek ez daukatelako guk duguna. Gure normaltasuna luxua da haientzat, eta guri zaila egiten zaigu halako gauzez disfrutatzea.

#### Zergatik?

Bizitzaren erritmoa geroz eta azkarragoa delako. Lehen, lana bukatu eta baratzera joaten ginen, eta orain, sakelakoa hartu eta sare sozialak begiratzen ditugu. Horregatik iruditzen zait garrantzitsua dela bertako izaera mantentzea eta herritarrak zaintzea. Balioa eman behar diogu daukagunari.

#### Orduan, ingurua oso garrantzitsua da zuentzat.

Erabat. Gure produktuekin, eta,







ANDONI CANELLADA / FOKU


MOTZEAN

- Zer nahiago duzu, kozina-tu ala jan? Jan.
- Alamedan duzuen produktu bat? Txipiroiak.
- Alamedan eskaintzen duzuen plater bat? Tigre muskuiluak.
- Sukaldean aritzeko zein da ordurik onena? Goiza.
- Zer nahiago duzu, bazkaria ala afaria? Afaria.
- Nola deskribatuko zenuke Alameda hitz gutxitan? Familiaren historia.

bereziki, ekoizleekin dugun harremana beti goraipatzen dugu; sukaldeko lana baino garrantzitsuagoa da hori. Balioa eman behar diogu gertuko produktuari eta, noski, daukan prezioan ordaindu behar dugu. Askotan gehiegizkoa iruditzen zaigu porru sorta baten prezioa, baina gero edozer gauzatan xahutzen dugu diru hori. Benetan balio duen horretan gastatu behar dugu dirua; hau da, produktuan, hori baita gure sukaldearen oinarria. Menuetan gure ibilbidearen eta produktuen historia jartzen hasi gara orain; izan ere, badirudi gaur egun idatzita ez dagoena ez dela inoiz gertatu.

**Esaten duzue Bidasoko sukaldaritzaz egiten duzuela.**

Herri bakoitzak bere gastronomia dauka. Hondarribiko gastronomia ez da soilik herrikoa; askotan, ondoko herri eta eskualdeetatik lortzen ditugu produktuak, eta horregatik esaten dugu Bidasoko sukaldaritzaz egiten dugula. Geografikoki, leku on batean gaude, ez daukagu inolako zalantzarik. Gertu dugu Nafarroa, eta gure sukaldean egi-



**GASTRONOMIA JAPONIARRA.** 2007. urtean, euskal eta japoniar gastronomien topaketak egin ziren Hondarribian, eta Gorka Txapartegi eta Koji Fukaya sukaldariak parte hartu zuten —biak, argazkian—. Fukaya Luis Irizar sukaldariaren ikaslea izan zen, eta euskal gastronomia hedatzen aritu da Japonian. ANDONI CANELLADA / FOKU

ten ditugun plateretako lehen-gai asko Baztandik ekartzen ditugu. Bertan daukagu itsasoa ere, eta, muga ondoan egonda, estraperloan lortzen genituen produktuak lehen, Donostian edo bestelako lekuetan ez zeudenak. Azken finean, herriarekin eta gure inguruarekin harremana sortzea da garrantzitsuena, baita harreman hori kanpoko edonori erakustea ere.

**Zer plater aurki ditzake bezeroak Alamedan?**

Bi menu ditugu jatetxean: *Hondarribia* eta *Gartzinea*. Garai batean gurera etortzen ziren guztiek *Gartzinea* deitzen zioten jatetxearen eraikinari, lehenago hemen bizi zen andreak Garcia abizena zuelako. Hotel bat izan zen, Hondarribia aspaldi bihurtu baitzen herri turistiko. Gure bi menuekin, besteak beste, plater zaharrak berreskuratzen saiatzen gara. Horren adibide da *tto* zopa, arrantzaleek arrainarekin eta lekaleekin egiten zuten lapikoko jana. Amuarrainarekin edo ahatearekin egiten ziren errezeta tradizionalak ere berreskuratu ditugu. Horrez gain, guretzat oso ga-

rrantzitsua da produktu bakoitza dagokion garaian ematea, lehen-gai freskoarekin egiten baitugulan. Orain, adibidez, betea dugu baratzea, eta arraina ere sasoi onean dugu.

**Baduzue proiektu berririk esku artean?**

Egunerokoan bizi gara: ez dugu etorkizunean askorik pentsatzen. Garrantzitsuena ilusioa izatea da. Guk nahi dugu herriko jendea gurera etortzera kroketa bat jatera, herriarekin kontaktuan jarraitu nahi dugulako, hau baita gure lekua, eta horretarako egiten dugu lan.

**Gogorra da zuen lana?**

Bai, korrontearen kontra goazelako. Beste denek jai dutenean guk lan egin behar dugu, eta, gaur egun, jendeak balio handia ematen dio aisialdiari. Ni horretaz konturatzen naiz herriko ia inork ez duelako ostalaritzan lan egin nahi. Iaz, langileen kontaktaketa egiterakoan, konturatu ginen 11 nazionalitateko jendea dugula Alamedan lanean, eta hemezortzi langile gara. Uste dut hori gizartearen isla argi bat ere badela. ●



# Titulu faktoria



## IRITZIA

Leire Narbaiza Arizmendi

**I**gandea da, eta idazlanak zuzentzen nabil. Atzo ere zuzendu nituen, eta bihar ere tokatuko zait. Destajuan. Azken txanpan gaudenez, batzuek turboa jarri dute, akabatzaile lanetan. Beste batzuek, osterera, ez, absentismoan. Eskerrak esatekotan nago, aprendiz alferrek zerbait ona ere izan behar dute eta.

Azken txanpan gaudela idatzi dut, ostegun, ostiral eta larunbatean; hau da, artikulua hau argitaratuko den egunean, buru-belarri, edo buru-esku ibiliko direlako euskarako B1, B2, C1 eta C2ko idatzizko azterketak egiten EAEn, HABEk antolatutakoak. Azterketa-makineria. Milaka pertsona aurkeztuko dira titulua lortzeko asmotan, batzuk euskaltegiak (Udal Euskaltegi, AEK, euskaltegi homologatu eta autoikaskuntzako zentroetakoak), eta besteak, libretik. Makinatxo bat jende urduri eta izerditan inork egiten ez duena egiten: idazlanak. Gutuna, iritzi artikulua, formala, informala, Alkate agurgarri hori, Kaixo, lagun!, adeitasunez, besarkada bat, alde batetik, beste aldetik, izan ere, alde onak eta txarrak... Inora ez doazen letra eta lerroen fabrika.

Idaztearen alde nago, nola ez. Lan probetxugarria dela deritzot, idazteak hizkuntza

ikasprozesuan ikaragarri laguntzen duelako, ikasitakoaz hausnartzera bultzatzen gaituelako, eta ahozkoak ematen ez duen patxadaz, dakiguna eta ez dakiguna zehazteko langintza bikaina delako. Horregatik, idaztea erreminta baliotsua dela begitantzen zait, baina nire ueste makalean, denbora, energia eta indar larregi jaten digu euskara klaseetan, horrelakoak produzitzen zentratzen garelako, batez ere (idatzia gainditu ezean, ezin da ahozkoa pasatu). Trepetxua helburu-produktu bihurtu dugu. Beraz, egokitasunak, koherentziak, kohesioak, zuzentasunak eta hitz kopuruak bizi gaituzte. Ekoitzi eta ekoitzi.

Askotan ikasleak langintza absurdoan trebatzen nabilelako sentsazioa daukat. Izan ere, nork idazten du luze gaur egun? Nork gutunak eskribitu? Hirurehun hitz dituzten emailak? Hizkuntzaren bat ikasten ari diren ikasleek, presoek,

**Langile publiko batzuek behar dute hizkuntza eskakizuna, baina frankok, dagokion titulua bereganatu ostean, tiraderan sartu eta inoiz ez dute euskararik erabiliko inon. Alferreko lana**

kazetariak, txostengintzan dihardutenek, nire moduko astunek... Kito!

Titulitisaren menpe gaude euskalduntze fabriketan, eta ez da beharleku gozoa. Makineriaren parte gara, eta denok sartuta gaude muntaketa-kate honetan. Piezak fabrikatu, iritzi-emaile eta gutun-bidaltzaileak sortu, paper bat lor dezaten. Engrana-jeak gara eraiki den titulu-tailer honetan.

Ikastun gazte askori lehenbait lehen eskura dezatela gomen datzen diegu, betiko zertifikazio hori izango dutelako, nahiz eta, agian, gero behar ez izan. Langile publiko batzuek, osterera, behar dute hizkuntza eskakizuna, baina frankok, dagokion titulua bereganatu ostean, tiraderan sartu eta inoiz ez dute euskararik erabiliko inon. Alferreko lana.

Etortzen zaizkigun horietako askok ueste dute papertxoa lortzeko era bakarra azterketa-ko idazlanak egitea eta egitea dela, inongo desbideratze barik eta lehenengo momentutik. Irakurtzeak ere ariketa atxikia izan behar du, baina, betiere, azterketako ereduakoa. Ez al-dendu ekoizpen modu horretatik, kexatu egingo dira eta. «Solo voy a hacer lo que entra en el B2». Euskara ikastea? Tira, subjuntiboren bat beti geratzen da ondo idazlanetan, ezta? Xedea titulua da ia beti, benetan euskara ikasi nahi dutenen kaltetan.

Euskara tailerrak izan beharrean, titulugintza faktoriak bihurtu gara! ●

## HITZ GUTXITAN



### Donostiako Guardetxea okupatu du AZGak

DONOSTIA— Donostiako Guardetxea okupatu zuen maiatzaren 1ean AZGA Alde Zaharreko Gazte Asanbladak, Gipuzkoako hiriburuko eragile eta norbanakoen laguntzarekin. AZGak adierazi zuenez, udalak 2019an itxi zuen Guardetxea, «hainbat konponketa egiteko aitzakian». Sei urte daramatza hutsik. Asanblada prest dago udal gobernuarekin biltzeko. Argazkian, AZGAko kideak, maiatzaren 1ean, Donostiako Guardetxearen atarian. AZGA

### ESALDIA

«Turismoa mundu osoko arazo bihurtu da. Ez munstro bat delako, baizik eta bere hutsaltasunagatik kalte egiten duelako»

FITO RODRIGUEZ  
Idazlea



### ZENBAKIA

2

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak bi gizon atxilotu ditu nera-been eduki sexualako irudiak engainu bidez zabaltzeagatik, eta 83 eta 16 urteko espetxe zigorrak ezarri dizkie. Biktimak 12 eta 15 urte bitartekoak dira; gehienak, mutilak.

### Iñaki Olazabal eskultorea hil da, 65 urte zituela

Iñaki Olazabal eskultorea hil zen larunbatean, 65 urte zituela. Andoainen sortu zen, eta han eman zituen lehen pausoak artearen munduan. Azken urteotan Zumaian bizi zen; han zeukan sorkuntzarako estudioa. Olazabalen obrak hainbat udalerritan daude ikusgai, hala nola Andoainen, Zumaian, Donostian, Donibane Garazin, Senperen (Lapurdi), Bilbon eta Zugaztietan (Bizkaia).



*zure onena azpimarratuz*



[www.bidera.eus](http://www.bidera.eus)

**berria** Taldearen zerbitzu enpresa • 943-303 555 / 607-787 304 • [bidera@bidera.eus](mailto:bidera@bidera.eus)

Komunikazioa • Banaketa • Itzulpenak • Dei zentroa • Aholkularitza • Publizitatea





# Mendira joko dute mila lagunek

- Domusa Teknik mendi lasterketak egingo dira bihar, Azpeitian: 40 MLK eta 15 MLK.
- Proba luzean, Espainiako Ultratrail Running Txapelketa ere izango da. Gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute bi probetan.

## Andoni Elduaen

Domusa Teknik 40 MLK eta 15 MLK mendi lasterketak jokatu-ko dira bihar, Azpeitian. Ia mila korrikalarik hartuko dute parte: seihun lagunek korrituko dute Domusa Teknik 40 MLK proba, eta 350 lagunek 15 MLK.

08:00etan abiatuko da bi probetan luzeena. Korrikalariek 65 kilometro egin beharko dituzte, 3.700 metroko desnibel positiboarekin. Laugarren aldia izango da proba hori Azpeitian egingo dena, eta, aurren, Espainiako Atletismo Federazioak antolatutako Espainiako Ultratrail Running Txapelketa ere jokatu-ko dute proba horren barruan. Seihun korrikalarietatik laurogei inguruk egingo dute txapelketa hori. «Punta-puntan aritzen diren kirolariak espero ditugu Ultratrail Running txapelketan», esan du Iker Ezama lasterketaren antolatzaileetako batek.

Antolakuntzako kide Pedro Seguík adierazi du Ultratrail Running txapelketak ez diela aparteko lan kargarik sortu. «Ez zaizkigu aldatu ez kudeaketa, ez funtzionamendua, ez antolaketa. Zenbait gauza hartu behar izan ditugu kontuan, baina lana, oro har, antzekoa izan da». Proba horretan Espainiako Atletismo Federazioan federatuta dauden atletak soilik parte hartu ahal izango dute, eta dortsal desberdina izango dute, bereizgarri moduan.

65 kilometroko proba hasi eta ordubetera hasiko da Domusa Teknik 15 MLK, bigarrenetaz. Korrikalariek 26 kilometro egin beharko dituzte, 1.400 metroko desnibel positiboarekin.

## Emakume gehiago

Seguík esan du «gutxika-gutxika» gero eta emakume gehiago parte hartzen ari dela probetan, eta uste du antolatzaileek aurreko aldien ostean egindako lanketaren ondorio dela. «Lehen urtean, laurhun parte hartzaileetatik 35 izan ziren emakumezkoak, eta shock bat izan zen guretzat. Plan estrategiko bat jarri genuen abian, emakumeen parte hartzea handiagoa izan zedin etorkizunean». Hala, neskentzako mendi irteerak antolatzen hasi ziren 2022an, kirol munduan erreferenteak diren emakumeek lagunduta. Iaz, berriaz, 26 kilometroko mendi lasterketa bat antolatu zuten, eta ikusi zuten emakumeen parte hartzea «nabarmenagoa» izan zela orduan.

Biharko proban luzean, parte hartzaileen %10 izango dira emakumezkoak, eta, proba laburrean, kasik erdiak —350etik 156—. Se-

↑ Hainbat lagun, iaz, mendian gora, Domusa Teknik mendi lasterketan, Azpeitian.

Argazkiak  
ROMAN AZKUE





«Punta-puntan aritzen diren mendi korrikalariak espero ditugu Ultratrail Running txapelketan»

**IKER EZAMA**

Domusa Teknik lasterketaren antolatzailea

«Herriak bere egin du lasterketa. Jaso dugun bultzadak asko lagundu digu aurrerapausoak ematen»

**PEDRO SEGUI**

Domusa Teknik lasterketaren antolatzailea



guik azaldu du probarako izen ematea zabaldu baino egun bat lehenago dortsalen erdiak esku-ragai jarri zituztela emakumeentzat eskusiboki. «Arriskua hartu genuen, ez baikenekien nolako erantzuna izango zuen. Dena den, guk espero baino askoz hobea izan zen emaitza, egun bakar batean 150 emakumek eman bai-

tzuten izena. Euskal Herrian eta Espainian dortsalen erdiak emakumeentzat gorde eta banatzea lortu duen lehen trail lasterketa da gurea».

Ezamak eta Seguik esan dute antolatzaile taldeak «hasieratik» jakin duela noraino eraman nahi zuen lasterketa, eta hastapenetatik gaur arteko ibilbidean

«zortea» izan dutela. «Inguruak asko lagundu digu: herriak bere egin du lasterketa. Festa handi bat da, eta herriaren bultzadak asko lagundu digu aurrerapausoak ematen».

Dena den, identifikatuta daukate bestelako erroka batzuk. Seguik dio gehienbat «inguruko jendeak» parte hartzen duela

eta, hortaz, deialdia zabaltzeko asmoa dutela. «Oso garrantzitsua da bertakoen parte hartzea, baina dugun erroka handiena eta zaile-na da hemendik kanpoko jendea erakartzea. Zaila izango da bertakoak beti aktibo egotea, eta, horregatik, beharrezkoa izango da dibertsifikatzea. Esku artean dugu horretarako lanketa».

Hainbat gune egokituko dituzte biharko lasterketetarako. Azpeitiko ikastola-Ikasberrin, anoa gune urdina jarriko dute, eta jolas inklusiboak eta puzgarriak izango dituzte han, baita jateko eta edateko postuak ere. Alde zaharrean, Olber DJaren, 3indarrok elektrotxarangaren eta Azketa taldearen emanaldiak izango dira. ●



**Izozkiak**  
Probatu eta gozatu!

Boulevard 4, Donostia

info@mahala.eus - 943 670 724 - www.mahala.eus





← Galtzaundiren egoitza berriko ataria, Tolosako Plaza Berrian. JON MIRANDA

↓ Hainbat lagun, apirilaren 16an, Tolosan, Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkartearen egoitza berriaren irekieran. IMANOL GARCIA



# Aldi berri baterako egoitza berria

Duela 35 urte sortu zen Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkartea, eta egoitza berria ireki du Tolosako Plaza Berrian; lehengoa halako hiru da.

Jon Miranda

TOLOSA— Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkartek egoitza berria du, Tolosako Plaza Berriko lehen zenbakian. Apirilaren 16an inauguratu zuen. Azken 30 urteotan Nafarroa etorbidean izan duen egoitza halako hiru da lokal berria —170 metro koadro ditu—, eta Manex Urruzola Galtzaundiko lehendakariak esan du «aukera gehiago» eskainiko dizkiola elkarteari. «Euskarak mugimendua behar du, euskaltzaleok mugitu egin behar dugu, eta mugitzeko lekua falta genuen aurreko egoitzan. Leku hau bide berri baten abiapuntua da».

Igor Agirre Galtzaundiko kideak uste du toki berriak aukera emango duela eskualde osoan gauzatzeko moduko proposamenak lantzeko. «Lokal honetatik atera behar dute euskaltzaleek egindako proposamenek, eta ez dute izan behar lokal honetan gauzatzekoak bakarrik, baizik eta baita eskualdean garatzekoak ere».

Egoitza berria irekitzearekin batera, zehaztapen bat egin diote elkartearen abizenari: euskara

taldea zen lehen, eta Tolosaldeko euskaltzaleen elkartea da orain. «Nor garen eta zer egiten dugun ondo definitzeko, pentsatu genuen *euskaltzale* hitzak izenean agertu behar duela. *Tolosaldea* izenarekin erreferentzia egin nahi izan diogu eskualdeko 28 herriek osatzen duten esparruari», azaldu du Agirrek. Logoa ere aldatu diote, kolore gama berari eutsita. Gainera, Taupa mugimenduaren ikurra erantsi diote logoari, elkartea hartako kide dela adierazteko.

## Leku zabal eta irekia

Galtzaundiko kideek diote lokal berriak barrura sartzeko gonbita egiten duela. Gardena da, oinezkoen maila berean dago, jendea ibiltzen den plaza baten aldamenean dago, eta zamalanetarako aparkalekuak ditu aldamenean, sartu-irten azkarrak egiteko modukoak. «Erosoa da euskaltzaleentzat», esan du Agirrek. Izan ere, iruditzen zaie tokiak elkartearen gutxieneko eskakizunak betetzen dituela. Askotariko gelak ditu, hala nola dozena bat lagun biltzeko bilera gela bat, harre-

ra gunea, biltegia, lan teknikoan aritzen direnentzako bulegoa eta, erdian, oholtza txiki batekin atondu duten eremu bat. «Gauza askotarako erabili nahi dugu erdiguneko txoko hori. 50-60 bat lagun egoteko adina toki dago, eta parte hartze saioak, bilerak, hitzaldiak eta ikuskizun txikiak egin nahi ditugu hor».

Galtzaundiko kidearen ustez, askatasun handiagoa izango dute lokal berrian. «Lehen, beste batzuek kudeatzen zuten tokira egokitu behar izaten genuen, eta orain, autonomoagoak izango gara». Hasiak dira egoitzan askotariko ekitaldiak antolatzen: tertulia literarioa, mintzalagun egitasmoa, Euskaraldiko bilerak... Agirrek kontatu du, ohiko ekinaldiez gain, euskaltzaleek egindako bestelako proposamenak ere badirela tartean.

Elkarteko lehendakari Urruzolak adierazi du lokala Tolosaldean euskararen alde ari direnen «etxea» izango dela. «Aukera emango digu proiektuak sortzeko, hainbat belaunalditako euskaltzaleak erakartzeko, kultur eki-

taldiak antolatzeko eta, batez ere, elkarrekin hazteko». Gaineratu du elkarrekin, ikastetxeekin, udalekin, merkatariekin eta kultur eragileekin lankidetzan jardungo dutela aurrerantzean ere. «Galtzaundiren betiko balioetako bat izan da elkarlana, eta horrek, orain arte behintzat, ekarri dizkio emaitzak. Beraz, ildo berari eutsi eta, aldi berean, beste bide batzuk irekiko ditugu».

## 35 urteko historia

Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkartek ez du ibilbide laburra. 1990eko abenduaren 13an sortu zuten, eta lehen bulegoa oraingo egoitzaren aldamenean zegoen. Bost bat urte egin zituzten han, eta Nafarroa etorbideko lokal txikiago batera lekualdatu ziren gero. Elkarteko kideek uste dute, lokal berria irekitzearekin batera, zentralitatea eta ikusgaitasuna berreskuratu dituztela. «Euskarak, toki finkoetan baino gehiago, mugimenduan eta eguneroko praktiketan egon behar du. Eta, eskatzen hasita, toki bat baino gehiago behar ditu eskualdean, ez bakarria», esan du Agirrek. «Garrantzitsua da lokal fisiko bat edukitzea, erreferente izango dena, bilgune gisa funtzionatuko duena eta euskararentzat arnagune izango dena». Tolosa erdigunean dago orain elkartearen lokala, eta, kideen iritziz, han egoteak «erreferentzialtasuna» bermatzen die.

Dena den, «galtzak bete lan» dituztela esan du Galtzaundiko kideak, eta 1990eko hamarkadaren hasieran elkartea abian jartzen jardun zuten kideen begi zorrotza goraiatu. «Ez zuten egiteko bakar bat ere utzi zerrendatu gabe; argi ikusi zuten zer arlotan eragin behar genuen, eta, ikuspegi horri esker, 35 urte geroago, euskarak Tolosaldeko plaza asko dauzka irabazita». Agirrek dio euskararentzako esparruak irabazteko lana nagusiki eskualdeko herri-rik handienetan egin dela, baina kontrara, euskararen hegemonia galtzen ari dela bestelako arnaguneetan. «Uste dut Galtzaundik bere itzala eskualdean zabaldu beharra duela oraindik».

Aurrera begira, beraz, Galtzaundik erronka ugari ditu Tolosaldean; adibidez, indarrean dauden euskararen kontrako estrategiei aurre egitea. Agirreren ustez, horretarako beharrezkoa da komunitatea «trinkotuta» egotea, eta horretan lagunduko die egoitza berriak. 30 lagun baino gehiago aritu dira lokala atontzeko auzolanean, batzuk lehendik Galtzaundiko kide zirenak eta beste batzuk oraintsu batu direnak. ●



«Euskaltzaleok mugitu egin behar dugu, eta mugitzeko lekua falta genuen aurreko egoitzan»

MANEX URRUZOLA

Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkarteko lehendakaria

«Lokal berriak aukera emango digu proiektuak sortzeko eta, batez ere, elkarrekin hazteko»

IGOR AGIRRE

Galtzaundi Tolosaldeko euskaltzaleen elkarteko kidea





# «Indarrak batzeko» laguntza deialdi bat

Kutxa fundazioak Gipuzkoa Aliantzan laguntza programa abiarazi du, helburutzat hartuta herrialdeko hainbat eragilek elkarlanean garatutako gizarte berrikuntzako proposamenak bultzatzea. Hiru milioi euro jarri ditu.

Miren Mujika Telleria

Kutxa fundazioak *Gipuzkoa Aliantzan 2025* izeneko «ezohiko» laguntza programa jarri du martxan, eta hiru milioi euro jarri ditu horretarako. Garbiñe Etxezarreta fundazioko kideak esan du asmoa dela Gipuzkoako hainbat eragileren arteko «aliantzek

egituratutako, eraldatutako eta elkarlanean garatutako gizarte berrikuntzako proposamenak bultzatzea». Herrialdeko «gizarte erronkarik garrantzitsuenek» erantzungo dieten ekinaldiak babestu nahi dituzte hala, eta «berrikuntzaren, lankidetzaren eta konpromiso kolektiboaren kultura» sustatu. «Kutxa fundazioan, berez, baditugu hainbat diru-laguntza deialdi, askotarikoak tipologiari eta helburuei dagokienez», esan du Etxezarretak. «Deialdi horiek behin baino gehiagotan egiten ditugu, baina Gipuzkoa Aliantzan deialdia bakarra da, eta horregatik esaten dugu ezohikoa dela». Zehaztu du deialdia «izaera juridikoa duen edozein motatako eragileentzat» dela —unibertsitateak, kooperatibak, fundazioak, enpresak...—, administrazioarentzat salbu. Jada zabalik dago fundazioaren webgunean proposamenak aurkezteko epea, eta irailaren 30ean itxiko dute.

*Gipuzkoa mugitu, Gipuzkoa sentituz lelopean*, Kutxa fundazioak 2024tik 2030erako plan estrategikoa aurkeztu zuen iazko ekainean, Donostiako Tabakaleran. Planaren harira sortu dute diru laguntzen deialdia. «Helburua da Gipuzkoako askotariko

↑ Kutxa fundazioak Gipuzkoa Aliantzan 2025 laguntza programa iragartzeko zabaldutako irudia.  
KUTXA FUNDAZIOA



«Aliantzan aritzea bera nolabaiteko gizarte berrikuntza bat da, eta guk gizarte berrikuntza hori sustatu nahi dugu»

GARBIÑE ETXEZARRETA  
Kutxa fundazioko kidea

eragileekin estrategia hori bultzatzea», adierazi du Kutxa fundazioko kideak. «Proposatzen dugun plan estrategikoa oso konplexua da, eta uste dugu erronkei ezin zaiela bakarka erantzun; hau da, indarrak batu behar ditugu. Beraz, Gipuzkoa Aliantzan 2025 indarrak batzeko deialdi bat da». Proposamen sendo, holistikoa eta eraldatzaileak sustatu nahi dituzte, eta Etxezarretak jakinarazi du proposamenak «aliantzan» aurkeztu behar direla. «Aliantzan aritzea bera nolabaiteko gizarte berrikuntza bat da, eta guk gizarte berrikuntza hori sustatu nahi dugu laguntza programa honekin».

Programak hiru helburu nagusi ditu: STEAM bokazioak sustatzea, ikaskuntzaren eta gaitasunen garapena bultzatzea eta Gipuzkoako gizarte eta ingurumen konpromisoa indartzea. «Ideia horiek definitzen dituzte Kutxa fundazioaren etapa berri honetako inpaktu sozialaren lehentasuneko eremuak», esan du fundazioko kideak. «Aurkeztu diren proposamenek helburu bati, biri edo hiruri heldu ahal izango diete, eta modu integratu eta egituratuan planteatu behar dira».

## Aurrekontuaren %80

Etxezarretak dio Gipuzkoa Aliantzan 2025 laguntza programa Kutxa fundazioak herrialdeko berrikuntza sozialaren arloan orain arte abiatutako «garrantzitsuenetako bat» dela. Hori dela eta, hiru milioi euro jarriko dituzte laguntza horretarako. Aurrekontuaren %80 emango die proposamenei —gutxienez 500.000 euro proposamen bakoitzari—. Deialdiaren aurrekontua amaitu arte finantzatuko dituzte proposamenak, fundazioak egokitzen jotzen duen kalitatea badute, betiere.

Fundazioko kideak azaldu du «urrats bat» egin nahi dutela lankidetzan, berrikuntzan eta eragin kolektiboan oinarritutako eredu baterantz. «Programa honek gonbidapen irekia izan nahi du Gipuzkoa bidezkoagoa, ikasiagoa, sortzaileagoa eta jasangarriagoa lortzen lagunduko duten ekimenak sustatzeko».

Programari buruzko informazioa emateko eta eragileek zalan-tzak argitzeko saio bat antolatuko dute maiatzaren 29rako. Donostiako Tabakalerako Kutxa Fundazioa Kluba aretoan egingo dute, 09:30etik 13:00etara. «Egun horretan, laguntza programaren gaineko informazioa emango dugu, eta beste eragile batzuk ezagutu eta haiekin aliantzak osatzeko abagunea izango da». ●



## MUSIKA

- Aia** Sune. Bihar, 22:00etan, probalekuan.
- Andoain** Ensemble Moxos. Ostegunean, 19:30ean, Bastero kulturgunean.
- Azpeitia** Urtz eta Eraldatzen. Bihar, 22:00etan, Sanagustin kulturgunean.
- Bergara** Aitor Garitano eta German Ormazabal. Gaur, 19:00etan, Seminarixoan.
- Donostia** John Dealer & The Coconuts. Gaur, 20:00etan, Kutxa Fundazioa Klubean.
- Donostia** Victor Rutty, Rober del Pyro & Dj Kaef. Gaur, 20:00etan, Dabadaban.
- Donostia** Michael Is Back. Michael Jacksonen omenez. Gaur, 20:30ean, Kursaaletan.
- Donostia** Faenna eta Huda. Bihar, 20:30ean, Dabadaban.
- Donostia** Mitsune eta Joseba Irazoki. Bihar, 21:00etan, Kutxa Fundazioa Klubean.
- Donostia** Donostiako Udalaren txistulari taldea. Igandean, 12:15ean, Konstituzio Plazan.
- Donostia** Dj Symphonic & Royal Film Concert Orchestra. Igandean, 19:30ean, Kursaaletan.
- Donostia** Quiet Light. Igandean, 20:00etan, Dabadaban.
- Donostia** Esti Markez. Astelehenean, 19:30ean, Intxaurren kultur etxean.
- Donostia** Sol Band. Asteartean, 19:00etan, Intxaurren kultur etxean.
- Donostia** Amain Eman. Ostegunean, 19:00etan, Donostiako Orfeoiaien egoitzan.
- Donostia** Skegss. Ostegunean, 20:00etan, Dabadaban.
- Hernani** Nerea Goñi Ibañez. Gaur, 19:00etan, kultur etxean.
- Irun** Naiade abesbatza. Bihar, 19:00etan, Amaia kultur zentroan.
- Legazpi** Gari. Gaur, 20:00etan, Latxartegi aretoan.
- Mendaro** *Queen gaua*. Elgoibarko musika banda, Jon Gurrutxaga, Patxi Zabaleta eta Andoni Zabaleta. Gaur, 22:00etan, plazan.
- Pasaia** *Vamos que nos vamos*. Golden Apple Quartet. Igandean, 19:00etan, Juanba Berasategi aretoan.
- Tolosa** Musikene Big Band. Gaur, 20:00etan, Leidor aretoan.
- Tolosa** Alguillo & Alkimistak.



ARITZ LOIOLA / FOKU

## Sune bihar gauean Aiako probalekuan

**AIA**– Josune Arakistain *Sune-k Amaineman* bakarkako lehen diskoa kaleratu zuen iazko abenduan, trikitia eta musika elektronikoa uztartuta. 11 kantuz osatu du lana: *Kantauri, Hori bai, Lau korapilo, Urruti, Muxu bana, TXITXARRO, Ondo dago, Kopa, Milaka lore, Orainari eta Sunday*. Euskal Herriko hainbat oholtzatan aurkeztu du, eta Aiako probalekuan izango da bihar, 22:00etan. Irudian, Sune, apirilean, Barakaldoko BECen (Bizkaia).

- Gaur, 22:00etan, Bonberenean.
- Tolosa** Black Ends. Bihar, 22:00etan, Bonberenean.
- Tolosa** Gabriela Mendez, Estefania Bermudez, Paula Chana eta Alvaro Cabanillas. Igandean, 12:30ean, Topicen.
- Tolosa** Gari. Igandean, 19:00etan, Bonberenean.
- Usurbil** Ruper Ordorika. Gaur, 19:30ean, Sutegi aretoan.
- Villabona** Chuleria, Joder! eta Tobogan. Gaur, 22:30ean, Aljibean.
- Zarautz** Maite Larburu. Gaur, 20:00etan, Modelo aretoan.
- Zarautz** Esanezin. Igandean, 12:30ean, Arrano tabernan.
- Zumarraga** Harrikada. Bihar, 19:30ean, gaztetxean.
- Zumarraga** Ensemble Moxos. Igandean, 12:30ean, Zelai Arizti aretoan.

## ANTZERKIA

- Aretxabaleta** *Euskaldun-gak*. Tautelak taldea. Gaur, 20:00etan, Zaraia aretoan.
- Astigarraga** *Katana*. Ana Goitia. Bihar, 20:00etan, Erribera kulturgunean.
- Azkoitia** *Heisenberg*. Tanttaka konpainia. Bihar, 19:00etan, Baztartxo antzokian.
- Beasain** *FutbolisTOK*. Zuhaitz

- Gurrutxaga. Gaur, 20:30ean, Usurbe antzokian.
- Donostia** *Nada es lo que parece*. Dakris magoa. Igandera arte, 18:00etan, Viktoria Eugenia antzokian.
- Donostia** *A veces grito*. Mararay konpainia. Igandera arte, 18:00etan, Imanol Larzabal aretoan.
- Donostia** *Ali Baba eta 40 lapurrak*. Borobil konpainia. Bihar, 17:30ean, Gazteszenan.
- Donostia** *Kay, robot*. Ameztu antzerkia. Bihar, 18:00etan, Bidebietako frontoian.
- Donostia** *Mochila al pasado*. Luis Fabra eta Danny Boy-Rivera. Bihar, 19:30ean, Imanol Larzabal aretoan.
- Donostia** *Chico glamour*. Pablo Ibarburu. Bihar, 21:00etan, Kursaaletan.
- Eibar** *Scrooge eta mamuak*. Khea Ziater konpainia. Asteartean, 19:00etan, Coliseo antzokian.
- Hernani** *Eukalyptus*. Jon Ander Urresti. Ostegunean, 19:00etan, kultur etxean.
- Lezo** *Burumalo*. Ipuin kontaketa, Pello Añorga. Asteazkenean, 18:15ean, liburutegian.
- Urretxu** *Ostirala iritsi da!*. Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore. Igandean, 17:00etan, Ederrena pilotalekuan.
- Zizurkil** *Aztia*. Don Inorrez eta Metrokoadroka. Gaur, 19:00etan, Atxulondon.
- Zumaia** *Scrooge eta mamuak*.

- Khea Ziater konpainia. Igandean, 19:30ean, Aita Mari antzokian.
- Zumarraga** *Arizona*. Txalo konpainia. Gaur, 20:15ean, Zelai Arizti aretoan.

## BERTSOLARITZA

- Eibar** *Bertso jasa, bat-bateko jolasa*. Haurrentzako bertso antzerkia. Eneko Beretxinaga eta Araitz Katarain. Astelehenean, 11:30ean, Arraten.
- Eibar** *Bertso jasa, bat-bateko jolasa*. Haurrentzako bertso antzekia. Irune Basagoiti eta Araitz Katarain. Asteartean, 11:30ean, Arraten.
- Eibar** *Bertso jasa, bat-bateko jolasa*. Haurrentzako bertso antzerkia. Uxue Alkorta eta Libe Goenaga. Asteazkenean, 11:30ean, Arraten.
- Eskoriatza** Señora sariketako lehen kanporaketa. Malen Altzuart, Amaia Elizagoien, Maddi Etxeberría, Markel Laskurain, Lierni Rekondo eta Iraitz Sarasola. Bihar, 17:00etan, Elioste elkartean.
- Ezkio-Itsaso** Bertso afaria. Aratz Igartzabal Bidegain eta Aitor Mendiluze. Gaur, 21:30ean, plazan.
- Hernani** Bertso afaria. Oihana Arana eta Asier Azpiroz



Iztueta. Gaur, 21:00etan, Kebab jatetxean.

**Hondarribia** Bertso saioa. Agin Laburu eta Eli Pagola. Ostegunean, 11:00etan, Guadalupen.

**Ibarra** Bertso jaialdia. Aner Peritz, Maider Arregi Markuleta, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Unai Mendizabal. Gaur, 19:30ean, elizan.

**Oiartzun** Bertso bazkaria. Sustrai Colina eta Alaia Martin. Bihar, 14:00etan, Aldeguna elkartean.

**Usurbil** Bertso saioa eta bertso bazkaria. Beñat Gaztelumendi eta Ane Labaka Maioz. Ostegunean, 11:30ean, plazan, eta 14:30ean bazkaria.

**Zaldibia** Klow'n bertso saioa. Maialen Akizu, Oihana Iguaran eta Beatriz Egizabal. Gaur, 19:00etan, herri antzokian.

DANTZA

**Donostia** Soirée de Ballets. Malandain Balleta. Entsegu irekia. Ostegunean, 19:00etan, Viktoria Eugenia antzokian.

**Hernani** Amama. Aukeran konpainia. Bihar, 12:00etan, kultur etxean.

**Zumaia** OTS. Haatik konpainia. Gaur, 20:30ean, Aita Mari antzokian.

ERAKUSKETAK

**Bergara** Euskal balearen modulua. Maiatzaren 31ra arte, Laboratorium museoan.

**Donostia** 100 urte. Modernoa eta/edo garaikidea. 2026ko apirilaren 13ra arte, San Telmo museoan.

**Donostia** Ipuscua 1000 urte. Ipuscuatik Gipuzkoara. 1025-2025. Igandera arte, San Telmo museoan.

**Donostia** Misterioa argitzea. Mari Paz Jimenez. Maiatzaren 18ra arte, Kutxa Fundazioa Kubo aretoan.

**Donostia** Memoriaren basoak. Igandera arte, San Telmo museoan.

**Donostia** Hamarreko 10 emakume. Gipuzkoako hamar emakume artistaren lanak. Martxe Arana, Elena Arrese, Maria Castilla, Dorleta Diaz, Susana Ferreira, Nisa Goibururu... Ekainaren 6ra arte, LaCentral Art Galleryn.



HITZA

‘Hamarreko 10 emakume’ erakusketa Donostian

**DONOSTIA**– Donostiako Gros auzoko La Central arte galerian *Hamarreko 10 emakume* erakusketa jarri dute ikusgai. Bilduman Gipuzkoako hamar emakume artista garaikideen lanak bildu dituzte: Julia Otxoa, Ainize Txopitea, Susana Ferreira, Dorleta Diaz, Elena Arrese, Maria Castilla, Martxe Arana, Nora Pilarte, Adriana Ibargaien eta Nisa Goibururenak. Helburua da arteak sexurik ez duela erakustea eta andre artisten lana ikusaraztea. Ekainaren 6ra bitartean izango da zabalik. Irudian, Maria Castilloren lan bat, *Hamarreko 10 emakume* bilduman.

**Donostia** Poetikotasuna. Itziar Lamuedra. Maiatzaren 16ra arte, Ernest Lluch kultur etxean.

**Donostia** Nerea Urrestarazu. Ekainaren 8ra arte, Aiete kultur etxean.

**Donostia** Joan Fontcuberta. *Monstrorum historia*. Joan Fontcuberta. Ekainaren 29ra arte, Kutxa Fundazioa Artegunean.

**Donostia** Mauthausenetik haratago. Francesc Boixen argazkiak. Maiatzaren 31ra arte, Okendo kultur etxean.

**Donostia** Hosto-orrien artean. Erakusketa kolektiboa. Victoria Arkaia, Txus Sanz, Cristina Sanchez, Irene Merino, Arri Bidasoro, Karmele Agirrezabal eta Arantza Albisu. Ekainaren 15era arte, Kristinaenean.

**Donostia** Pasabide bertikala: heriotzaren heriotza. Garazi Navas. Abuztuaren 17ra arte, Tabakaleran.

**Donostia** Birika bezain elastikoa. Anna Irina Russell. Uztailaren 27ra arte, Tabakaleran.

**Donostia** Atzokoak gaur: Herri musikaren artisauak. Ekainaren 29ra arte, San Telmo museoan.

**Errenteria** XVI. mendeko burukoak eta jantziak. Ekainaren 1era arte, Euskal Jantzien Museoan.

**Getaria** Cristobal Balentziaga. *Teknika, Materia eta Forma*. 2026ko urtarrilaren 11ra arte, Cristobal Balentziaga museoan.

**Hernani** Harri, Lurra, Huts. Maiatzaren 31ra arte, Txillida Lekun.

**Irun** Hilde, haurtzaroa eta vanitas-ak. Sergi Cadenas eta Barbara Stammel. Maiatzaren 25era arte, Menchu Gal erakusketa aretoan.

**Tolosa** Kolore-dolore. Iñaki Bastarrika Izagirre. Igandera arte, 3 tabernan.

**Zarautz** Oteiza argazkiz argazki. Zarauzko Argazki Bilerak dela eta. Maiatzaren 25era arte, Sanz Enean.

**Zarautz** Flysch. Martin del Busto. Maiatzaren 25era arte, Torre Luzean.

**Zarautz** Esne-hortza. Silvia Aierra. Maiatzaren 18ra arte, Photomuseumen.

umea. Ipuin kontaketa saioa, Maite Franko. Astelehenean, 17:00etan, kultur etxean.

HITZALDIAK

**Arrasate** Mo: behi euskaldun baten memoriak. Literatur solasaldia, Igor Leturia. Asteazkenean, 18:00etan, Kulturaten.

**Ataun** Ataungo Erdi Aroko aztarnategiak. Ander Arrese. Asteazkenean, 18:30ean, Barandiaran museoan.

**Donostia** Euskal Herriko mitoak eta identitatea. Amaia Rojo eta Beñat Egiluz. Asteazkenean, 19:00etan, Koldo Mitxelenako ekitaldi aretoan.

**Ordizia** Sexilioa: euskal landa-eremuko LGTBI+ komunitatearen istorioak eta erretratuak. Joseba Olagarai eta Martxel Larraza. Gaur, 19:00etan, kultur etxean.

HAUR JARDUERA

**Ordizia** Printzesak maite zituen

 **EUSKAL HERRIKO KULTUR EKITALDIEN AGENDA**  
berria.eus/agenda.html



# Intsumisioaren oihartzuna gogoan

Intsumisioa jaialdia egingo dute bihar Urretxuko gaztetxean, Urretxun eta Zumarragan mugimendu antimilitaristak egindako ekarpena gogoratzeko asmoz. Hitzaldi bat eta bi kontzertu antolatu dituzte.

## Lide Egizala Urteaga

URRETXU— Kultur Aterkia elkar-teak Intsumisioa jaialdia antolatu du bihar arratsalderako, Urretxuko gaztetxean. Elkar-teak intsumisioaren gaineko askotariko ekintzak antolatu ditu otsailetik hona, eta ekainean amaituko dute ekinaldia, ikastetxeetan txertatzeko unitate didaktiko bat proposata.

Intsumisioaren gaia ardatz hartuta, jarduera ugari antolatu dituzte azken hilabeteotan. *11 memoria ariketa: intsumisioa* erakusketa zabaldu zuten lehenik. Bilduman, intsumisio izandako Iñaki Lizarralde 1990eko hamarkadaren erdialdean ateratako argazkiak jarri zituzten ikusgai. Martxoan, Lander Garro idazle eta dokumentalgileak zuzendutako *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* filma eman zuten, eta solasaldia egin zuten ondotik, Zumarragako Zelai Aritzari aretoan. Dokumentalak kontatzen du orain dela hiru hamarkada milaka euskal gaztek egin ziotela uko soldaduskari, eta espetze zigorrak izan ziren horren ordaina. Hain zuzen ere, bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezartzen zieten askori.

Bihar arratsaldean izango da Intsumisioa jaialdia, eta *Armagintza moztu* izeneko hitzaldiak abiatuko du egitaraua, 17:00etan. Markina-Xemeingo ECIA-Xemein arma lantegiaren aurkako borrokari buruz jardungo dute. Ondoren, Urretxuko Harrikada eta Santa Barbara musika taldeen kontzertuak izango dira gaztetxean, 19:30ean eta 21:00etan, hurrenez hurren.

Ricardo Babardo Kultur Aterkia elkarteak kideak esan du jaialdiaren helburua dela Urre-

txun eta Zumarragan mugimendu antimilitaristak egindako ekarpenak «ahantzuran ez erortzea» eta belaunaldi berriei orduko borrokaren berri ematea. «Intsumisioaren mugimenduak indar handia izan zuen bi herriotan, eta, ekin-tza hauen bitartez, gaur egungo gazteei azaldu nahi diegu borroka hori zer izan zen. Babardok dio derrigorrezko soldaduskaren inguruan jaio zen mugimendu antimilitarista 1990eko hamarkadako «ikurretako bat» izan zela. Soldaduska egiteari uko egin zioten herriko gazte asko epaitu egin zituzten, eta kartzela zigorrak ezarri zizkieten. Horregatik, antolatzaileek nahiko lukete bi herrietan izandako intsumisioei «behar bezalako aitortza» egitea.

## Orduko oroitzapenak

Jorge Andueza *Pitu* urretxuarra intsumisioa izan zen 1990eko hamarkadan, eta «garai polit» gisa oroitzen du hura. «Gure balioak oso garbi geneuzkan, bagenekien zer egin nahi genuen, baita zeren kontra egin nahi genuen ere. Orduko borroka poz handiko eta beldurrik gabeko garai moduan gogoratzen dut». Andueza UZTA-ko kide izan zen, Urretxu eta Zumarragako Talde Antimilitaristakoa, eta kontatu du ekintza ugari antolatu ohi zituztela; besteak beste, kontzertuak, hitzaldiak eta manifestazioak. Gaineratu du mugimendu «orokor eta antolatu» bat izan arren intsumisio bakoitzaren errealitatea desberdina zela, eta, beraz, senitartekoek eta ingurukoek ere desberdin bizi izan zuela garai hura. «Nik inoiz ez nuen beldurrez bizi izan gure borroka, baina familiakoek eta bikotekideek askotan esan izan digute beldurra pasatu zutela».



11 memoria ariketa: intsumisioa erakusketa, otsailean, Urretxun. AIMAR ZALDUA



Urretxuko eta Zumarragako intsumisio batzuk, otsailean, Urretxun. KULTUR ATERKIA ELKARTEA



«Intsumisioaren mugimenduak Urretxun eta Zumarragan izan zuten indarra azaldu nahi diegu egungo gazteei»

## RICARDO BABARRO

Urretxuko Kultur Aterkiako kidea

«Gure balioak oso garbi geneuzkan, bagenekien zer egin nahi genuen, baita zeren kontra egin nahi genuen ere»

## JORGE ANDUEZA 'PITU'

Intsumisio izandakoa

Kultur Aterkia elkarteak arduratu da jaialdia antolatzeaz. Elkar-tea 2020ko irailean sortu zuen herriko kultur mugimendun zebilen lagun talde batek, pandemiak kultur arloan eragindako kalteei «erantzuteko» asmoz. Kideen ustez, eremu publikoa «harreman sozialetarako eta eraikuntza kolektiborako leku» gisa ulertu behar da, eta iruditzen zaie kultura «ezinbestekoa» dela prozesu horretan, «pertsonen arteko loturak eta elkarriketak bultzatzeko», batez ere.

Intsumisioa jaialdia ez da antolatzen duten jarduera bakarra, bestelako ekinbide batzuk ere prestatzen baitituzte, betiere herriko artistak eta kultur eragileak «lehen lerroan» jarrita. 2021ean antolatu zuten lehen ekintza: kaleko arte erakusketa

bat. Obrak Urretxuko eta Zumarragako hainbat txokotan jarri zituzten ikusgai, eta haiek aurkezteko ekitaldi bat egin. Iazko ekainean, Lin Ton Taunen eta Tapia eta Leturiaren kontzertua antolatu zuten.

Biharko jaialdiaren ostean, Kultur Aterkia elkarteak kideek intsumisioaren gaia jorratzen duen unitate didaktiko bat sortu nahi dute, herriko ikastetxeetan landu dezaten. «Ikastetxeetako ikasleek parte hartu izan dute intsumisioaren inguruan antolatu ditugun ekintzetan», esan du Babardok. «Argazki erakusketa egin genuenean, bisita gidatua prestatu genien DBHko 4. mailako eta batxilergoko ikasleei, eta garai hartako egoera eta testiguruak azaldu genizkien bideoen eta halakoen bitartez». ●



# Kinka

## KLIMA ETA NATURA KRISIAN



Podcasta eta buletina,  
**hamabostero**

HARPIDETU ZAITEZ  
BULETINERA



*Berria.eus/kinka*

**aldi hau**  
*kontatzeko*  
**berria**





## «Denok gara ezohikoak eta apartekoak»

**IDOIA MADARIETA** Psikologoa, psikoterapeuta eta psikodramatista

horretarako, batik bat, gurasoeekin elkartu izan gara. Patologia duala eta adikzioari buruzko gaiak plaza-ratu nahi izan ditugu, baina modu dibulgatzaile batean; hau da, guk ez dugu izan nahi psikologia azaltzera datozen profesionalak, baizik eta ulergarri diren hitzaldiak eman nahi ditugu. Giro atsegin bat sortzen saiatzen gara, lasai hitz egin ahal izateko. Gainera, buru osasuna zaintzeko ezinbestekoa da prebentzioa.

**Zertaz ari zara patologia dualaz ari zarenean?**



«Oinarrizkoa bermatua ez dagoenean, ikuspegia indibiduotik harago zabaldu behar da»

eta txarra. Horretaz ere hitz egingo dugu, eta garrantzitsua da hau gogoratzea: nahasmendua duena heldutasuna lortzeko prozesuan baldin badago, esan nahi du heldutasuna lor dezakeela. Gainera, badago nortasunaren muturreko nahasmenduaren ezaugarri izan daitekeen bat, gizartean desberdin antzematen dena gizon edo emakume izanda: nagusitzeko gaitasuna.

**Eta zer eragin du horrek?**

Gizonekin alderatuta, ia bi halako dira nahasmendua diagnostikatua duten emakumeak. Zera datorkit burura: gizarteari zailago al zaio nagusitu ohi den emakume bat jasatea, nagusitu ohi den gizonezko bat jasatea baino? Berdin toleratzen al da oldarkortasuna emakumeengan eta gizonengan? Iruditzen zait gizon batek nagusitzeko gaitasuna duenean lider izendatzen dugula, baina, aldiz, emakumeei nortasunaren muturreko nahasmendua diagnostikatzen diegula.

**Orduan, gizarteak eragina du nahasmenduaren ezaugarrietan...**

Orain gutxi lankide batzuek aipatu zidaten nahasmendua dutenek dena orain eta azkar behar izaten dutela: «Ni neu eta oraintxe». Ezin zain egon eta ezin frustrazioa kudeatu. Nire ustez, gaur egungo gizarteak eragina du horretan, baina baita beste hamaika gauzatan ere: lanak gaixotzen gaitu, etxerik eduki ahal ez izateak gaixotzen gaitu... Oinarrizkoa bermatua ez dagoenean, ikuspegia indibiduotik harago zabaldu behar da.

**Lehenagoko hitzaldietan, familiarengan jarri izan duzu arreta.**

Asteazkeneko saioan ere presente izango dugu nahasmendua dutenei zer esatea komeni den, eta zer den hobe isiltzea. Adibidez, horrelakoak ez dira esan behar: «Ez dago ulertuko zaituenik», «zergatik egin duzu hau?» edo «zergatik zara horren oldarkorra?». Esaldirik okerre-na haxe izaten da: «Nik ezin dut zurekin». Adibide bat jartzearren: desberdina da piano bat afinatzeko behar den denbora eta gitarra bat afinatzeko behar dena. Horrek ez du esan nahi gaixo gizajo moduan tratatu behar direnik; ulertu behar dugu zer gertatzen zaien eta horren arabera jokatu: mugak ezarri, baina mindu gabe. Badago liburu gomendagarri bat horri buruz hitz egiten duena: Dolores Mosqueraren *Diamantes en bruto*.

**Beraz, zeinentzat da asteazkeneko hitzaldia?**

Batez ere, nahasmendua duten horien ingurukoentzat eta kuriositate apur bat duen edonorentzat. ●



ENDIKA PORTILLO / FOKU

Idoia Madarieta psikologo, psikoterapeuta eta psikodramatistak buru osasunari buruzko hitzaldia emango du asteazkenean, Arrasaten. Nortasunaren muturreko nahasmendua izango du hizpide Ediren osasun kooperatibako kideak.

**Odile Bourguignon Goñi**

Arrasaten buru osasunari buruzko hitzaldi zikloa antolatu dute udalak, Katearen Loturak elkarteak eta Ediren osasun kooperatibak. Urtarrilean izan zen lehen hitzaldia, eta ekainean bukatuko dute zikloa. Datorren asteazkenean izango da hurrengo saioa: Idoia Madarieta psikologo, psikoterapeuta eta psikodramatista (Ispas-

ter, Bizkaia, 1971) ariko da hizlari, 18:00etan hasita. *Nortasunaren muturreko nahasmendua; piztia arraro bat naiz edo pertsona berezia?* jarri diote titulua hitzaldiari.

**Zer dela-eta buru osasunari buruzko hitzaldi ziklo bat?**

Ni Ediren osasun kooperatibakoa naiz, eta azken urteotan Katearen Loturak elkartearekin aritu gara elkarlanean patologia duala lantzen;

Buru osasuneko nahasmenduak adikzioarekin nahasten diren kasuei buruz ari naiz. Kasu horietan zaila izaten da zehaztea zerk eragin duen zer: nahasmenduak adikzioa ala adikzioak nahasmendua.

**Zeri buruz hitz egingo duzu Arrasateko hitzaldian?**

*Nahasmendu* hitza entzutean sortzen zaizkigun aurreiritziak alboratzea da helburua. Maiz pentsatu ohi dugu nahasmendua ezin dela sendatu, edo nahasmendua dutenak gatazkatsuak direla, zaila dela haiekin harremana izatea... Denok gara ezohikoak eta apartekoak, eta denok ditugu berezitasunak eta maniak. Nortasunaren muturreko nahasmendua dutenekin gertatzen da denbora behar izaten dutela



SOLASEAN

heldutasun emozionala garatzeko. Hitzaldian, nahasmenduaren ezaugarriak aipatuko ditut, baita sintomak ere.

**Erraza al da ezaugarriekin identifikatzea?**

Zerrenda irakurri eta pentsatzen duzu: «Nork ez du inoiz horrelako ezer sentitu?». Adibidez, haserrealdi handi bat, ezinegon emozionala, erabakiak hartzeko ezintasuna, zailantza... Sutsuki bizi ohi dute ona